

## Funtsesko jarduerak

Hainbat jarduera gako edukiko ditu gure enpresak. Produktuak sortzen ez ditugulakoan, ez dira beste enpresen antzerkoak izango. Hauek dira garrantzitsuenak:

Gure jarduera garrantzitsuena, aplikazioa egitea eta diseinatzea izango da. Oinarri onik gabe ezin izango delako proiektua gauzatu. Hots, aplikazioa ondo antolatuta ez badago jendeak ez du erabili nahiko.

Ondoren, langile talde on bat eskuratzea izango da esanguratsuena, hauek eskainiko baitituzte zerbitzuak. Hautaprobak eguterako garaian, ERTE edo langabezian dauden horiek lehentasuna izango dute. Izan ere, gizartean hobekuntza bat proposatu nahi degu honekin eta modu honetan ekonomia martxan jarriko da.

Ildo beretik, enprekin hartzarmenak egitea ezinbestekoa izango da. Gure diru iturriak handik datoz eta. Honek ere, gure enpresaren helburua betetzea lagunduko du, hots, zerbitzu guztien eskaintza leku beretik egitea, jendeak bilatzen denbora galdu ez dezan.

Azkenik, zerbitzu horiek banatzea izango da. Link baten bitartez beste enpresen weborrira bideratuz edo gure zerbitzu propioak eskainiz.

Eta argi dago, enpresa zabaltzea, bezeroak lortzea eta arazoetan ez sartzea ere beharrezkoa izango dela.